



DEIALDIA, IRUÑEKO UDALTZAINGOKO AGENTE LEHEN ARITZEKO 13 PLAZA KATEGORIAZ IGOTZEKO LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO

Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2025ko abenduaren 22ean ebazpen bidez onetsi zuen deialdia, honako oinarri hauekin bat:

OINARRIAK

1. oinarria. Arau orokorrak:

1.1. Deialdi honen xedea da Iruñeko Udaltzaingoko agente lehen aritzeko 13 plaza –funtzionario araubidekoak eta C mailakoak– betetzea, kategoriaz igotzeko lehiaketaren prozeduraren bidez.

Plaza horiek izanen dira lehiaketako eta berariazko lehiaketako prozeduren bidez Udaltzaingoko agente lehenaren plazak betetzeko 2026an egingen den lekualdatze-lehiaketaren ondorioz hutsik geratzen direnak, eta honako txanda hauetan banatuko dira:

- a) 9 plaza barne-igoerako txandan, Iruñeko Udaleko Udaltzaingoko kideendako.
- b) 4 plaza igoera-txanda irekian, ezarritako betekizunak betetzen dituzten Nafarroako Polizia guztietako kideei irekiak.

Barne-igoerako txandan probak gainditzen dituzten izangaien kopurua plaza hutsen kopurua baino handiagoa baldin bada, txanda horretako probak gainditu eta plazarik gabe gelditu direnek aukera izanen dute igoera-txanda irekiko plazetarako lehiatzeko, betiere txanda horretako izangaiekin lehia garbiaren ondoren lortutako guztizko puntuazioari jarraikiz.

Barne-igoerako txandan betetzen ez diren plaza hutsak bete gabetzat joko dira, behin gehituta –hala badagokio– txanda irekian bete gabe geratutakoak.

1.2. Deialdi honen ondorioz izendatutakoek Iruñeko Udaleko funtzionario publiko eta Udaltzaingoko agente lehen izaera hartuko dute; Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatu eta bertan alta emanen zaie, araubide horretan ezarritako babesaren pean.

Deialdi honetako lanpostuetarako izendatutakoen artean Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainerako xedapen osagarrietan aipatzen den eskubide pasiboen eta osasun zein gizarte laguntzaren araubidean afiliatuta dauden funtzionarioek aukeratu ahal izanen dute bertan segitzea ala Gizarte Segurantzaz afiliatzea.

1.3. Nafarroako Polizia Kidegoetako kideak kategoriaz igotzeko prestakuntza-ikastaroak egin bitartean zerbitzu berezietako egoeran aitortuak izan diren izangaiek, egoerak iraun bitartean, jatorrizko plazan aitortuak dituzten ordainsariak osorik jasoko dituzte administrazio publiko deitzailearen eskutik.

1.4. Lanpostuetarako izendatutako izangaiek Nafarroako Polizie buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legean eta hori garatzen duten arauetan ezarritako eginkizunak bete eta eskubideak eta betebeharrak izanen dituzte.

1.5. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da.



2. oinarria. Arau aplikagarriak.

Prozedura honako arau hauetan xedatutakoaren arabera gauzatuko da: Nafarroako Polizieiei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea, Nafarroako Polizia Kidegoetako Langileen Erregelamendua onesten duen abenduaren 29ko 718/2003 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua, Iruñeko Udaltzaingoaren antolakuntza eta funtzionamendu Araudia, aplikatzekoak diren gainerako arauak eta deialdi honetako oinarriak.

3. oinarria. Izangaiek bete beharreko betekizunak.

3.1. Izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte kategoriaz igotzeko lehiaketa honetan onartuak izateko:

3.1.1. Barne-igoerako txanda:

- a) Agentearen lanpostuan gutxienez hiru urteko antzintasuna izatea, lanpostuaz jabetu zen dataz geroztik.
- b) Zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egotea, zein lanpostutatik igo nahi den hartan.
- c) Batxilergoko titulua, bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua edo horien baliokidetzat jotze den tituluren bat edukitzea.

3.1.2. Igoera-txanda irekia:

- a) Nafarroako Polizien agentearen lanpostuan gutxienez hiru urteko antzintasuna izatea, lanpostuaz jabetu zen dataz geroztik.
- b) Udaltzainak: Udaltzain lanpostuan gutxienez 3 urteko antzintasuna izatea, lanpostuaz jabetu zen dataz geroztik, eta Polizia lanpostura sartzeko Oinarrizko Prestakuntza Ikastaroa –Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Nafarroako Segurtasun Eskolak emana– gaingitu izanaren egiaztatzea.
- c) Zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egotea, zein lanpostutatik igo nahi den hartan.
- d) Batxilergoko titulua, bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua edo horien baliokidetzat jotzen den tituluren bat edukitzea.

3.2. Aurreko betekizunak bi txandetako izangaiek bete beharko dituzte parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean, eta mantendu plaza jabetzan hartzen den egunera arte.

4. oinarria. Eskabideak eta aurkezteko epea.

4.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea eta tokia.



a) Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izanen da, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina da.

b) Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek eskabidea modu telematikoan aurkeztu beharko dute, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraikiz: “Izapideak eta lizitazioak”, “Lan-eskaintzak”, “Enplegu publikoa”, “Enplegu publikoko deialdiak”, deialdi honi dagokion aipamenean.

4.2. Eskabideak online aurkezteko unean, barne-igoerako txandako izangaiek (Iruñeko Udaltzaingoko kideek) eskabideaz gain honakoa aurkeztu beharko dute:

- Udalak ofizioz erantsiko du espedientearen interesdunak Iruñeko Udaltzaingoko agentearen lanpostuan gutxienez 3 urteko antzintasuna duela –lanpostuaz jabetu zen egunaz geroztik– egiaztatzen duen agiria, eta interesdunaren administrazio-egoeraren eta eman dituen eta aitortu zaizkion zerbitzuen berri ere emanen du.
- Deialdi honen I. eranskinean ezarritako baremoaren arabera alegatzen dituzten merezimenduak egiaztatzeko agiriak. Baldin eta izangaia aurkezten dituen merezimenduak Administrazio honen eskutan badaude, hala adierazi beharko da, eta berariaz azaldu zer prozeduratan dauden.

4.3. Eskabideak online aurkezteko unean, igoera-txanda irekiko izangaiek (Nafarroako Polizia Kidegoetako kideek eta udaltzainek) eskabideaz gain honakoa aurkeztu beharko dute:

- Organo eskudunak emandako egiaztagiria, egiaztatzeko interesdunak gutxienez 3 urteko antzintasuna duela, lanpostuaz jabetu zen egunaz geroztik zenbatuta, Nafarroako Polizia Kidegoetako bateko kide gisa. Egiaztagiri horretan bertan adierazi beharko da interesduna zein egoera administratibotan dagoen.
- Udaltzainek organo eskudunak emandako egiaztagiria aurkeztuko dute, egiaztatzeko interesdunak gutxienez 3 urteko antzintasuna duela, lanpostuaz jabetu zen egunaz geroztik zenbatuta, udaltzain lanpostuan. Egiaztagiri horretan bertan adierazi beharko da, baita ere, interesduna zein egoera administratibotan dagoen.
- Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak emandako egiaztagiria, non ziurtatuko baita interesdunak Polizia lanpostura sartzeko eskatzen den Oinarrizko ikastaroa, erakunde horrek emandakoa, gainditu duela. Betebehar hori Administrazioak berak egiaztatuko du, ofizioz, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak deialdia egin duen organoaren aurrean egiaztatuta.
- Izangaia deialdi honen I. eranskinean ezarritakoaren arabera alegatzen dituen merezimenduak egiaztatzeko agiriak.
- 3.1.2.d. oinarrian eskatutako titulazio akademikoa.

Eskarian antzematen diren akats materialak edo egitezko-akatsak edonoiz zuzentzen ahalko dira, ofizioz edo interesatuak hala eskatuta.



4.5. Izangaiek jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo indarrean diren legeekin bat kautotuak aurkeztu beharko dituzte.

5. oinarria. Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideetako zuzendariak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko ebazpena emanen du, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko.

Ezarritako epean eskabiderik aurkezten ez bada, Giza Baliabideetako zuzendariak kategoriaz igotzeko lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaritzen duen ebazpena emanen du.

5.2. Baztertutako izangaiek aukera izanen dute, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 10 egun balioduneko epean, erreklamazioak aurkezteko edo, hala badagokio, izaten ahal diren akatsak zuzentzeko.

5.3. Behin erreklamazioak aurkezteko epea iraganik eta haien gainean ebatzitakoan, Giza Baliabideetako zuzendariak izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emanen du, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko. Ebazpen horretan zehaztuko da kategoriaz igotzeko lehiaketaren probak egiteko tokia, eguna eta hasiera-ordua.

5.4. Aurreko apartatuetan aipatzen diren behin-behineko eta behin betiko zerrendetan honako datu hauek agertuko dira bakarrik: polizia- edo udaltzain-zenbakia, izangaia Nafarroako Poliziako zein kidegotakoa den edo zein den haren atxikipeneko toki-erakundea, eta zer txandatan aurkezten den.

6. oinarria. Kategoriaz igotzeko lehiaketaren garapena.

6.1. Kategoriaz igotzeko lehiaketa hiru fasetan egingen da. Lehenengo fasea lehiaketa izanen da; bigarrena, proba teoriko-praktikoa eta proba psikoteknikoak, eta, azkena, trebakuntza-ikastaroa, oinarri hauetan ezarritakoarekin bat.

Izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko emanen den ebazpenean zehaztuko dira kategoriaz igotzeko lehiaketaren probak egiteko tokia, eguna eta hasiera-ordua. Gainerako probetarako hurrengo iragarkiak Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) eta VINFOPOL Udaltzaingoaren kudeatzailearen iragarki-taulan argitara emanen dira, gutxienez 48 orduko aurretiazko epearekin.

6.2. Lehiaketaldia.

6.2.1. Lehiaketaldian izangaiek alegatutako merezimenduen balorazioa egingen da — merezimenduek behar bezala egiaztaturik egon behar dute—, eta gehienez ere 82,50 puntu jasoko dira:

- a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak: 35 puntu gehienez ere.
- b) Polizia-funtzioari lotutako prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa: 25 puntu gehienez ere.
- c) Hizkuntzak jakitea: euskara, frantsesa, ingelesa eta/edo alemana: 20,00 puntu gehienez ere.



d) Esker-sariak: 2,5 puntu bitarte.

Aurreko apartatuetaarako alegatu eta justifikatutako merezimenduak deialdi honen I. eranskinean jasotako baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak. Merezimenduak agiri bidez alegatu eta frogatu beharko dira lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkeztean. Epaimahaiak ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik, ezta apartatu bakoitzerako ezarritako gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu izangaiek alegatutako merezimenduen gainean.

Aldi honen amaieran, epaimahaiak behin-behineko puntuazioak argitaratuko ditu Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) eta VINFOPOL Iruñeko Udaltzaingoaren kudeatzailearen iragarki-taulan, eta 5 egun naturaleko epea irekiko du, argitaratzen diren egunetik aitzina, izangaiek eskubidez komeni zaien guztia alegatu dezaten.

Behin epaimahaiak behin-behineko emaitzen aurrean aurkezturiko erreklamazioak ebatzita, merezimenduen baremazioaren behin betiko emaitzak onetsi eta Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) eta VINFOPOL Iruñeko Udaltzaingoaren kudeatzailearen iragarki-taulan argitaratuko ditu.

6.3. Proba teoriko-praktikoaren eta proba psikoteknikoen fasea.

6.3.1. Proba teoriko-praktikoaren eta proba psikoteknikoen fasea honako proba hauek osatuko dute:

a) Lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzko proba teoriko-praktikoa: 150 puntu bitarte.

b) Proba psikoteknikoak: 70 puntu bitarte.

Proba guztiak deialdi bakarraren bidez egingen dira. Bazterturik geldituko dira horietako edozeinetara agertzen ez diren izangaiek.

6.3.2. 6.3.1. apartatuaren a) letran zehaztutako proba teoriko-praktikoaren gehieneko puntuazioa 150 puntukoa izanen da, eta test erako azterketa bat egin beharko da: II. eranskinean jasotako gaitegiari buruzko 100 galderek osatuko dute testa; horietako bakoitzak hiru erantzun posible izanen ditu, eta 1,5 puntu emanen zaizkie erantzun zuzenei, eta 0,5 puntu kenduko da oker erantzundako bakoitzagatik.

Proba baztertzalea izanen da, eta gutxienez 75 puntu lortu behar dira hura gainditzeko.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunean indarrean dagoen araudiaren arabera erantzutea eskatuko da gai guztietan.

6.3.3. 6.3.1. apartatuaren b) letran zehaztuta datozen gaitasun psikoteknikoaren probak: proba batzuk egingen dira, izangaiek lanpostuaren profil profesigrafiakoaren eskakizunei noraino egokitzen zaizkien neurtu beharrez. Nafarroako Administrazio Publikoko Institutuaren Psikologia Aplikatu Sailak egingen ditu probak, eta haren balorazioak lotesleak izanen dira



epaimahaiarentzat. Gaitasun psikoteknikoaren proba ez da baztertzaila izanen, eta 0 eta 70 puntu bitarte lortzen ahalko dira.

Proba psikoteknikoa egiteko honako hauek soilik onartuko dira: aurreko proba gainditu dutenen artean guztizko puntuaziorik onena –gehi alegatutako merezimenduen puntuazioaren batura– lortu duten barne-igoerako txandako 18 izangaiak eta igoera-txanda irekiko 8 izangaiak. 18. eta 8. postuetan, hurrenez hurren, puntuazio bera duten izangaiak baleude, guztiak onartuko dira. Gainontzeko izangaiak deialditik kanpo geratuko dira.

Probaren garapena:

–Profil profesiografikoa zehaztea: NAPIko Psikologia Aplikatuko Sailak eta Deialdiaren Kalifikazio-epaimahaiak proposatuko dute, edo hark izendatzen dituen langileek, lanpostuaren behar eta eskakizunen jakitun badira. Azterketa horretatik abiatuta zehaztuko dira ebaluatu beharreko faktore edo gaitasunak eta funtzioak egoki garatzeko beharrezkoak diren eskakizunak. Profil profesiografikoaren proposamena epaimahaiari aurkeztuko zaio probak hasi aurretik onetsi dezan.

Kalifikazio-epaimahaia arduratuko da, proben aurretik, garrantzitsutzat jotzen dituen kontuak bitarteko egokien bidez argitaratzeaz. Xede horretarako NAPIko arlo psikoteknikoko teknikariekin koordinatuko da, eta horiek helaraziko dizkiete profilean jasotako eta baloratu beharreko faktoreak eta zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak.

–Probak bi atal izanen ditu:

- Lehenengoan, ariketa psikotekniko bat edo batzuk egingen dira. Nortasunari buruzko galdetegi orokorrak izaten ahal dira, edo lan-gaitasunei buruzkoak edo/eta trebetasunei buruzkoak.
- Bigarrena banakako elkarrizketa edo/eta talde-lan bat izanen da, lehen zatiko galdera-sortekin alderatzeko.

Hautapen-faseko 6.3. oinarrian aurreikusitako proba bakoitzaren kalifikazio-aldia amaitutakoan, epaimahaiak behin-behineko kalifikazioak argitara emanen ditu Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) eta VINFOPOL Iruñeko Udaltzaingoaren kudeatzailearen iragarki-taulan, eta 5 egun naturaleko epea emanen du izangaiek alegazioak aurkez ditzaten.

Aurkeztutako erreklamazioak ebatzitakoan, epaimahaiak izangai guztien behin betiko puntuazioak onetsi eta Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) eta VINFOPOL Iruñeko Udaltzaingoaren kudeatzailearen iragarki-taulan argitaratuko ditu, eta kasuaren arabera gainditutako eta baztertutako izangaiak adieraziko dira, bai eta hurrengo probaren tokia, data eta ordua, gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago.

6.4. Behin baloratuta alegatutako eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak, eta proba teoriko-praktikoko eta proba psikoteknikoko puntuazioak gehituta, epaimahaiak Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) eta VINFOPOL Iruñeko Udaltzaingoaren iragarki-taulan argitaratuko ditu izangaiek eskuraturiko puntuazioak, eta 5 egun naturaleko epea emanen du



interesdunek balorazio horri buruzko erreklamazioak egin ditzaten eta eskubidez komeni zaien guztia alega dezaten.

Behin erreklamazioak aurkezteko epea iraganik eta haien gainean ebatzitakoan, epaimahaiak Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) eta VINFOPOL Iruñeko Udaltzaingoarean iragarki-taulan argitaratuko du izangaien zerrenda, lehiaketaren guztizko puntuazioak adierazita.

Berdinketarik izanez gero, administrazio publikoetan zerbitzuak ematen antzinasunetik handiena dutenen alde joko da, eta, berdinketak bere horretan jarraituz gero, proba teorikoan notarik onena lortu dutenen alde joko da. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, adinez zaharrena den lehiatzaileari emanen zaio lehentasuna.

NSLErako plazak. - Eskuragarri dauden plaza guztiak zehaztu ondoren, epaimahaiak NSLEan (Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskola) sartzeko igoera-ikastaroan onartutako izangaien zerrenda prestatuko du, betiere lortutako puntuazioaren hurrenkeran. Epaimahaiak zerrenda horren berri emanen dio NSLEari.

7. oinarria. Igoerarako gaitzeko ikastaroa.

7.1. Zerbitzu berezietako egoera adieraztea.

Iruñeko Udaleko Udaltzaingoko agente lehenaren lanpostura sartzeko ikastaroa —Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak emandakoa— egiteko xedez, hautaketa-prozedura gainditu eta bete beharreko plaza-kopuruan lekua duten izangaiak Nafarroako zein administrazio publikoren mende dauden eta horri zerbitzu berezietako egoera eskatuko diote, Nafarroako Polizeiei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 50.4 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Gaitzeko ikastarorako onarturiko izangaien zerrendan adieraziko da non, zer egunetan eta zer ordutan hasiko den ikastaroa.

7.2. Gaintitu beharrekoa.

Gaitzeko ikastaroa Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak emanen du, eta Eskolak berak ezartzen duen iraupena izanen du.

Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolaren prestakuntza-ikastaroa gaintitu beharrekoa izanen da; izan ere, izangaiak ikastaroko arlo guztiak gaintitu beharko ditu, gehienez ere 250 puntu lortuta. Honako arau hauek zedarrituko dute ikastaroa: Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolaren Antolamendu eta Funtzionamendurako Erregelamendua onesten duen irailaren 12ko 113/2005 Foru Dekretua eta aplikagarriak diren gainerako xedapenak.

Oinarrizko Prestakuntza Ikastaroan, izangaiak kalifikatuko dira lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera. Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak ikastaroko izangaiak zentzu horretan ematen dizkien kalifikazioak lotesleak izanen dira kalifikazio-epaimahaiarendako, zeinak deialdi honetan ezarritako puntuazioaren arabera esleituko baititu.

Oposiziotik bazterturik geldituko dira Oinarrizko Prestakuntza Ikastaroa gaintitu ez duten izangaiak.



7.3. Azken kalifikazioa.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa zein den jakiteko, hautapen-prozesu osoko puntuazio guztiak batuko dira; hau da, lehiaketa-fasean, proba teoriko-praktikoaren eta proba psikoteknikoen fasean eta, azkenik, gaitzeko ikastaroan lortutakoak.

Gaitzeko ikastaroa amaitutakoan, epaimahaiak argitara emanen du gainditu dutenen zerrenda, guztira lortu duten puntuazioaren hurrenkeran, eta izendapen-proposamena eginen du gainditu duten izangaien alde.

7.4. Behin ikastaroa amaituta, langilea automatikoki itzuliko da zerbitzu berezietako izendapena jaso arte betetzen ari zen plazara, zerbitzu aktiboan.

Zerbitzu berezietako egoeraren aitortpenak ez du batere aldaketarik ekarriko izangaiaren gizarte-aurreikuspeneko araubidean, eta egoera horretan dagoenean jatorrizko plazan zuen araubide berarekin jarraituko du.

Nafarroako Polizia Kidegoetako kideak kategoriaz igotzeko prestakuntza-ikastaroak egin bitartean zerbitzu berezietako egoeran aitortuak izan diren izangaiek, egoerak iraun bitartean, jatorrizko plazan aitortuak dituzten ordainsariak osorik jasoko dituzte administrazio publiko deitzailearen eskutik.

Izangaiek nor bere Administrazioaren egiaztagiri bat aurkeztu beharko dute, aurreko paragrafoan adierazitakoa egiaztatzeko, eta bertan zehaztuko da kontzeptu horiek direla-eta zenbat jaso zuten gaitzeko ikastaroa hasi aurreko hilabetean.

Zerbitzu berezietako egoera amaitutakoan, automatikoki utziko zaio aurreko apartatuak aipatzen duen ordainsari-araubidea jasotzeari, eta ez da inola ere eskuratutako eskubiderik eratuko, ez eskubide pasiborik edo deialdian jasotako plazatik eratorritako inolako eskubiderik sortuko.

8. oinarria. Kalifikazio-epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduketa.

8.1. Kalifikazio-epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Luis Manuel Iribarren Aguerri jauna, Iruñeko Udaltzaingoko komisarioa.
Ordezkoa: José Rey Carrascosa jauna, Iruñeko Udaltzaingoko komisarioa.
- Epaimahaikidea: Rudy Romo Rey jauna, Iruñeko Udaltzaingoko inspektorea.
Ordezkoa: José Viruel Zozaya jauna, Iruñeko Udaltzaingoko inspektorea.
- Epaimahaikidea: Raquel Pérez García andrea, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako eta Antolaketako goi-mailako teknikaria.
Ordezkoa: Beatriz Martínez Buldain andrea, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako eta Antolaketako goi-mailako teknikaria.
- Epaimahaikidea: Langileen Batzordeko ordezkari bat.



Ordezkoa: Langileen Batzordeko ordezkari bat.

- Epaimahaikide-idazkaria: Iruñeko Udaleko Aholkularitza Juridikoko letradu bat.

Ordezkoa: Iruñeko Udaleko Aholkularitza Juridikoko letradu bat.

8.2. Epaimahaia epaimahaiburuak deituta eratu beharko da, probak hasi baino lehenago.

8.3. Epaimahaia ezin izanen da ez eratu, ez jardun gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe, eta, betiere, bertan egonen dira epaimahaiburua eta idazkaria edo horien ordezkari direnak.

8.4. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari jakinarazi, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean horretarako ezarriak dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

8.5. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sortzen diren gorabehera guztiak.

Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aipatu aholkulariak zein bere espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan oinarriturik bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

9. oinarria. Gainditu dutenen zerrenda.

Prestakuntza-ikastaroa amaitutakoan, kalifikazio-epaimahaiaren behin betiko proposamena jaso eta Giza Baliabideetako zuzendariari bidaliko zaio, plaza hutsak esleitu eta izendapenak egin ditzan.

10. oinarria. Izendapena eta plazaz jabetzea.

10.1. Eskatzen zaizkien agiriak aurkeztu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak Iruñeko Udaltzaingoko funtzionario eta agente lehen izendatuko ditu kategoriaz igotzeko lehiaketa gainditu duten izangaiak, osotara lorturiko puntuazioaren hurrenkerarekin bat, eta izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

10.2. Izendatutako izangaiek izendapenean zehazten den egunean hartu beharko dute karguaren jabetza. Karguaz jabetzen ez direnek, behar bezala justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, kategoriaz igotzeko eskubidea galduko dute.

11. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtso hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.



b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

Iruñean, 2025eko abenduaren 22ean. Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.



I. ERANSKINA

Merezimenduak balioesteko baremoa

A) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak: gehienez, 35 puntu.

- 1.–Nafarroako Polizia Kidegoetan lanpostu finkoan emandako zerbitzuengatik, urte bakoitzeko: 1,50 puntu, polizia edo agente lanpostuan.
- 2.–Nafarroako Polizia Kidegoetan, deialdiaren xede den lanpostuan, behin-behinean emandako zerbitzuengatik, urte bakoitzeko: 1,65 puntu.
- 3.–Lanpostu finkoan, administrazio publiko baten menpeko beste Segurtasun Kidego eta Indarren batean, emandako zerbitzuak: 1,50 puntu, polizia edo agente lanpostuan.
- 4.–Edozein administrazio publikotan Polizia Kidego batekoak ez diren lanpostuetan emandako zerbitzuak: 0,25 puntu, urteko.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan emandako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleitu zaio.
2. Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, dagokion zatia kenduko da.
3. Ez dira baloratuko deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo datan emandako zerbitzuak.
4. Funtzionarioek zerbitzu berezien egoeran edo eszedentzia berezian eta unitate organiko baten burutzan edo zuzendaritzan emandako aldiak halako egoeretara igaro zirenean zeukaten lanpostuan emandako zerbitzu gisara baloratuko dira.

B) Prestakuntza, irakaskuntza, eta ikerketa: 25 puntu, gehienez.

- 1.–Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzea: 0,01 puntu emandako ikastordu bakoitzeko, gehienez ere 10 puntura bitarte.

Oharrak:

1. Baloratu beharreko prestakuntza-ekintzetan, ikastorduen zatikiak hainbanatuko dira.
 2. Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriei guztira 10 orduko balorazioa emanen zaie.
 3. Ikasturte akademiko bateko iraupena frogatzen duten ziurtagiriei guztira 120 orduko balorazioa emanen zaie.
 4. Puntuazio berarekin baloratuko da erakunde antolatzailearen baldintza bete ez baina Administrazioak aginduta edo haren oniritziarekin eginak diren prestakuntza-saiotetan parte hartu izana, halako prestakuntza-saiotzat joko direlarik espresuki sindikatuek Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatutakoak.
- 2.–Biltzar edo jardunaldietan txostenak edo komunikazioak aurkeztea, beka edo sariren bat jaso duten zientzia- edo ikerketa-lanak egitea eta aldizkari espezializatueta lanak argitaratzea: Hiru



(3) puntu, gehienez ere, kalifikazio-epaimahaiak baloratu beharrekoa, kontuan hartuz lana edo jardura pertsona bakar batek egin den edo taldekoa, eta biltzarra edo argitalpena zer esparrutakoa den (tokikoa, eskualdekoa, naziokoa edo nazioartekoa).

- Hitzaldiak edo komunikazioak biltzarretan edo jardunaldietan. 0,20 puntu hitzaldi bakoitzeko.
- Beka edo sariren bat jaso duten zientzia- edo ikerketa-lanak egitea eta aldizkari espezializatueta lanak argitaratzea. Era aktibo eta egiaztatuan parte hartzea baliabide kriminologikoak, sozialak, informatikoak eta instrumentalak garatzeko (ez ezartzeko) ikerketa-lanetan, poliziaren arloan aplikatzeko xedez. Gehienez ere, 1 puntu lan bakoitzeko.

3.–Sektore publikoan prestakuntza-ekintzak antolatzea edo halakoetan irakasle jardutea: Bi (2) puntu, gehienez ere, kalifikazio-epaimahaiak baloratu beharrekoa, ekintza horien iraupenaren arabera.

- 0,20 puntu emandako 10 orduko, banakapen honekin bat:
 1. Baloratu beharreko prestakuntza-ekintzetan, emandako orduen zatikiak hainbanatuko dira.
 2. Emandako orduen kopurua jasotzen ez duten ziurtagiriak ez dira baloratuko.
 3. Puntuazio berarekin baloratuko da erakunde antolatzailearen baldintza bete ez baina Administrazioak aginduta edo haren oniritziarekin eginak diren prestakuntza-ekintzetan irakasle aritu izana, eta halako prestakuntza-ekintzat joko dira espresuki sindikatuek Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatutakoak.

4. –Titulazio eta espezialitate akademikoak, deialdian eskatu direnez bestekoak: Sei puntu (6), gehienez ere.

Oharrak:

- Doktore-gradua, unibertsitate-gradua, lizentzia: 2 puntu
- Diplomatura: 1,50 puntu.
- Unibertsitateko master ofiziala: 1 puntu.
- Goi-mailako (LH II) prestakuntza: 0,50 puntu
- Berezko titulua, unibertsitateko aditu titulua edo unibertsitateko espezialista titulua: 0,25 puntu.
- Ez dira baloratuko aurreko titulueta irakasgai solteak.

5.–Beste merezimendu batzuk, epaimahaiak baloratzekoak. Besteak beste, sektore pribatuan egindako lanak, prestakuntza-bekak edo -egonaldiak eta parte hartzea kontsulta-, aholkularitza-, partaidetza- edo ordezkartza-organoetan: Lau (4) puntu, gehienez ere.

Oharrak, B) apartatu osorako:



Apartatu honetan, deialdi honen xede den lanpostuarekin zerikusia duten merezimenduak baloratuko dira, ez besterik. Ez dira baloratuko, inolaz ere, agente lehenaren lanpostua eskuratzeko beharrezkoak diren prestakuntza-ikastaroak.

C) Hizkuntzak ezagutzea: ingelesa, frantsesa, alemana edo euskara (20,00 puntu, gehienez ere):

1. Ingelesa, frantsesa, alemana edo euskara (5 puntu, gehienez ere, bakoitzeko)

- C2 MAILA: 5 puntu
- C1 MAILA: 4 puntu
- B2 MAILA: 3 puntu
- B1 MAILA: 2 puntu
- A2 MAILA: 1 puntu
- A1 MAILA: 0,5 puntu

Tituluak eta egiaztagiria Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailekin bat baloratuko dira. Maila horiek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari-kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean jasota daude, zeinak ezartzen baititu euskararen eta Europar Batasuneko hizkuntzen jakite-maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliozkotzeak, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera (2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 27koa).

Maila gorenari dagokion puntuazioa emanen da. Ez dira inolaz ere batuko hizkuntza bereko bi maila edo gehiagoko puntuazioak.

D) Sariak: gehienez ere 2,50 puntu.

Barne Ministerioak, Polizia Autonomikoek eta Udaltzaingoen edo Tokiko Polizien emandako sariak baino ez dira baloratuko.

- 1.–Zerbitzu Goraipagarrien Plakagatik: 1,25 puntu.
- 2.–Zerbitzu Goraipagarrien Dominagatik: 0,75 puntu.
- 3.–Jendaurreko Esker Onagatik: 0,50 puntu.
- 4.–Esker On pribatuagatik: 0,25 puntu.



II. ERANSKINA

Gaitegia

1.–1978ko Espainiako Konstituzioa: hitzaurrea. Atariko titulua. I. titulua: Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak. III. titulua: Gorte Nagusiak. IV. titulua: Gobernua eta Administrazioa. VI. titulua: Botere Judiziala. VIII. titulua: Estatuaren lurralde antolamendua, Lehen kapitulua, Printzipio Orokorrak eta Tokiko Administrazioaren bigarren kapitulua. IX. titulua: Konstituzio Auzitegia.

2.– 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa. II. liburua: Delituak eta horiei dagozkien zigorrak. I. titulua: giza hilketa eta giza hilketaren formak; III. titulua: lesioak; VI. titulua: askatasunaren aurkako delituak; VII. titulua: torturak eta osotasun moralaren aurkako beste delituak; VII. bis titulua: gizakien salerosketa; VIII. titulua: sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituak; IX. titulua: sorospen-eginbearra ez betetzea; X. titulua: bizitza pribatuaren, norberaren irudirako eskubidearen eta egoitzaren bortxaezintasunaren aurkako delituak; XI. titulua: ohorearen aurkako delituak; XIII. titulua: ondarearen, eta gizarte eta ekonomiaren ordenaren aurkako delituak, I., II., III., IV., V., VI., IX., X. kapituluak; XVII. titulua: segurtasun kolektiboaren aurkako delituak, III. eta IV. kapituluak; XVIII. titulua, I., II., III. eta IV. kapituluak; XIX. titulua, Herri administrazioaren aurkako delituak, I., II., III. eta IV. kapituluak; XX. titulua, Justizia Administrazioaren aurkako delituak, I., II., III., IV., V., VI. eta VIII. kapituluak; XXII. titulua, II., III., V. eta VI. kapituluak.

3.– 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua, Prozedura Kriminalaren Legea onesten duena: I. liburua, xedapen orokorrak, IV. titulua, nori dagokion delitu eta faltan ondoriozko ekintzak egikaritzea. II. liburua, sumarioa: I., III., IV., V., VI. eta VIII. tituluak. IV. liburua: prozedura bereziak, II. eta III. tituluak. VI. liburua: delitu arinen epaiketaren prozedura.

4.– 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena.

5.– 6/1984 Lege Organikoa, maiatzaren 24koa, «Habeas Corpus» prozedura arautzen duena.

6.–6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.

7.– 1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onartzen duena, zeinaren bidez aplikatu eta garatuko baita Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoa.

8.– 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa.

9.–2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa, Ikuskizun publikoak eta aisia-jarduerak arautzen dituen.

10.–201/2002 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Ikuskizun publiko eta josteta-jardueren ordutegi orokorra arautzen duena. 95/2003 Foru Dekretua, maiatzaren 5ekoa, 201/2002 Foru Dekretuaren lehenbiziko xedapen iragankorra aldatzen duena (2003ko 60. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 14koa).



11.–202/2002 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Establezimendu, ikuskizun publiko eta josteta-jardueren katalogoa onetsi eta enpresa eta lokalen erregistroak arautzen dituen. 656/2003 Foru Dekretua, urriaren 27koa, irailaren 23ko 201/2002 eta 202/2002 Foru Dekretuak aldatzen dituen (2003ko 145. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, azaroaren 14koa).

12.–33/2011 Foru Dekretua, maiatzaren 2koa, Aisiako jardueretan sartzeko eta haietan egoteko baldintzak arautzen dituen eta sarrera kontrolatzen duten langileen gaikuntza irizpideak eta eginkizunak ezartzen dituen.

13.–23/2018 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako Polizieiei buruzkoa.

14.–11/2009 Foru Dekretua, otsailaren 9koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena.

15.–Iruñeko Udaltzaingoaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamendua (2017ko 65. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, apirilaren 3koa) eta Udaltzaingoaren Antolaketa eta Funtzionamenduen Erregelamenduen aldaketa (2018ko 163. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, abuztuaren 23koa).

16.–Bide publikoan terrazak eta merkataritzari zein ostalaritzari loturiko bestelako elementuak jartzea arautzen duen Ordenantza.

17.–Iruñeko udal-mugartean maila txikiko aisialdi-lokalen funtzionamendua arautzen duen Udal Ordenantza.

18.–Iruñeko Alde Zaharreko emisio gutxiko eremua antolatze sistemak (2023ko urtarrilaren 1etik indarrean dena) arautzeko artikulak.

19.–Iruña hiriko Mugikortasunari buruzko Udal Ordenantza.

20.–Gizalegezko jokaeren sustapenari eta espazio publikoen babesari buruzko Udal Ordenantza.

21. – 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriari buruzkoa: berdintasunaren printzipioa eta bazterkeriaren kontrako babesa. 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.